ALTZOKO UDALA

UDALAREN ANTOLAKETA
(2023-2027 legealdia)

2023ko maiatzaren 28an hauteskundeak ospatu ondoren Altzoko Udala honela antolatu da:

1) **Altzoko Udala ondorengo zazpi kide hauek osatzen dute:**

Alkatea:	Xabier Olano Jauregi.
Zinegotziak:	Ainara Garcia Bravo
	Xabier Murua Zubizarreta
	Arantxa Menendez Chopitea
	Enaitz Aizpitarte Murua
	Loli Arandia Azpeitia
-	Joseba Elduaien Olazar

2) **Alkateordeak** hauek dira:

- 1. Alkateordea:	Ainara Garcia Bravo
- 2. Alkateordea:	Xabier Murua Zubizarreta

3) **Batzordeak eta batzordekideak:**

Batzordeak:	Batzordekideak.
1)Hirigintza/obrak eta Industria:	Xabier Olano eta Joseba Elduaien
2)Ogasuna, Aurrekontuak eta pertsonala:	Xabier Olano eta Arantxa Menendez
3)Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasuna:	Ainara Garcia eta Arantxa Menendez
4)Kultura, Euskara:	Xabier Murua eta Loli Arandia
5)Gazteria, Kirola eta Festak:	Xabier Murua eta Enaitz Aizpitarte
6)Ingurumena, Nekazaritza eta Zerbitzuak	Enaitz Aizpitarte eta Joseba Elduaien
7)Hezkuntza, Ostatua eta Turismoa:	Ainara Garcia, Loli Arandia eta Arantxa Menendez

Dena den, Udalak erabaki zuen aitortzea **eratutako Batzordeak herritarrentzat irekiak** direla eta beraz beraietan parte hartzeko interesa duen edonork Udalean bere interesa adierazi dezakeela eta Batzordeko kide izango dela. Horrela daude sortuta eta funtzionatzen dute Kultur Batzordeak eta Jai Batzordeak, hau da, Udal kideez eta herritarrez osatuta daude biak.

4) **Plenoak eta Batzorde-bilerak:**

Hilero Pleno bat edo Ohiko Osoko Bilkura bat egingo da. Pleno hauek hilaren 1. astelehenean, arratsaldeko 7:00etan egingo dira, gai zerrenda, deialdia eta aktarekin. Plenoak publikoak diren arren herritarrek entzule bezala bakarrik hartu dezakete parte. Dena den, Plenoa amaitutakoan Udal kideek bertan jarraituko dute bertaratzen diren herritarrek izan ditzaketen galdera, gai, eskaera, kezka e.a. jasotzeko.

5) **Udal bulegoa:**

ALTZOKO UDALA

Astelehenetik ostiralera goizeko 9etatik arratsaldeko 15etara irekita egongo da.

6) **Hirigintza gaiak eta arkitektoa:** Hirigintzako gaiak, asteazken goizetan aztertuko dira, besteak beste, Udal ordezkari izendatuekin eta arkitektoarekin, goizeko 8etatik aurrera.

7) **Ongizatea eta Gizarte Langilea:** asteazken eta ostegun eguerdietan.

8) **Liburutegia:** astelehenetik ostiralera, eskola garaian, arratsaldeko 4:30etatik 6:30etara irekita egoten da. Dena den, garai horretatik kanpo, Udal bulegoan eta ordutegian, liburuak hartu edo utzi daitezke.

9) **Gimnasioa:** Udal bulegoan ateak ireki eta ixteko txartela egin behar da eta goizeko 5:00etatik gaueko 22:00ak arteko ordutegian ibili daiteke bertan.

10) **KZgunea:** udal idazkaritza eta liburutegia irekita daudenean KZ-gunea ere ireki ahal izango da. Tutorea hilean behin bertan izaten da (eguna eta ordutegia Liburutegian eta Udaletxean galdetu daiteke).

Informazio hau zuentzat baliokoa izango delakoan luzatzen dizuet agur bero batekin batera.

Altzon, 2023ko ekainaren 27an.
Alkateak.
Xabier Olano Jauregi.

ALTZOKO UDALA